



I. HIKE EIZAN!

BERTSOPAPER
LEHIAKETA

HELDUAK eta GAZTEAK
2022-06-30




HELDUAK



1. SARIA

Eli Pagola Apezetxea



TXIMISTA ETA TRUMOIA
DOINUA: Ostiralean duzu

1- Lehengoan leihoraino txorrotxiogintzan heldutako txepetxa kontaria izan kantatu nahi ninake harek egin gisan tximista ta trumoiia zer-nola dabiltzan.

2- Tximista dun beroa, tximista hauskorra energia askodun ekile bizkorra behin helburu bat jartzen badin egoskorra handik edo hemendik helduko dun horra.

3- Trumoiarena ez dun antzeko kasua berea aldiro dun bigarren pausua patxarosa, pikati, erdi setatsua nahi ez duela ere zalapartatsua.

4- Presio desberdinak parekatu xede zeru-lurrak astindu asmoz goi ta behe nahiz ta elkarrengana moldatu hain trebe izan dizkiten euren istiluak ere.

5- Orain milaka urte nolako estanpa basoa guztia bete zunan tantaz tanta Tximistak hartu zinan haserre galanta Trumoi beti berandu iristen zunan ta.

6- Ibili orde z lehen urratsa nork eman batera hobe zela zitenan antzeman baina predikziorik gabeko sisteman bihotzeko ugari eman zizkitenan.

7- Ez zitenanez maite bihotzik haustea erabaki zitenan ordenari eustea aleatorioki zerutik jaistea batzutan lehenengo bat bestetan bestea.

8- Jolasaren graziaz edo ohartuta lagunaren lekua hartzen ausartuta elkarlanean ditun erabat sartuta konfiantza eskainiz ardurak hartuta.

9- Beraz gaurtik aurrera ekaitza lehertzean jarri hire etxeko atari ertzean ea igartzen dunan segidan heltzean noiz datozen haserre ta noiz jolasean.

HELDUAK



2.SARIA

Aimar Goenaga Agirrezabal

AMONAK BILOBARI

DOINUA: Haurtxo txikia negarrez dago

1- Aizan, ttiki, aizan, Miren hator amonaren magalera.
Kontatu nahi dinat umetako gure hainbat gorabehera.
Jolasa zunan gure gogoa, jolasa zunan plazera.
Irudimena baliatuta ondo pasatzeko era.

2- Edozer zunan jolasgairako, edozer zunan balios.
Izan kanikak, izan pilotak edota zenbait tortolos.
Jostailuak geureganatzeko ez zitunan aski bi sos.
Baina jolaste hutsa hain zuzen zunan eguneroko poz.

3- Klarionaz marrazten geninan herriko plazako lurra.
Bederatzi laukitan saltoka eta txingoka egurra!
Harritxo bat geninan bidaide, aisialdiko aitzurra.
Jakina, josteta haiek ere zitenan bere glamourra.

4- Hustutako atun latek ere zer joko_ ematen zitenan!
Ostikoka aritzen gintunan elkarren arteko deman.
Hala futbolarien itxura hartu genezakeenan.
Gaur egun baloi gabe futbolik ezin ziteken hauteman.

5- Eta poto horiekin ere nahiko modu arlotean.
Aritzen gintunan jolas baten izenez "Bote-botean".
Ezkataketaren antza zinan, hots, oinarria kolpean.
Ezkutukoak jartzen zitinan agerian bat-batean.

6- Baina dena ez dun antzinako, dena ez dun aspaldiko.
Hain zuzen ere geratu ditun jolas batzuk historiko.
Harrapaketan aritu gaitun gertuko ta urrutiko.
Ziur asko horrek iraungo din sekulako ta betiko.

7- Kromoak ere esku artean ehundaka izan nitinan.
Lagun artean elkartrukeak antolatzen genitinan.
Edo jolasten gintunan ere plaza ertzeko izkinan.
Sorta erosi ahal izateko ez baikeundenan nominan.

8- Bazirudin garaiak aldatu zaizkigula aspaldion,
ezen ezin dela geroari igarri zer datorkion.
Baina, hik ttiki, hire erara buruari eragion.
Jolas hauen bizi irautea gure eskuetan zagon.



Hike eizan!

HELDUAK



AZKOITIA-SARIA

Lide Rekondo Jauregi

AMONAK BERE BIZITZAREN ERREPASOA EGITEN DIO BILOBARI

DOINUA: Esateko ez naiz lotsa

1- A zer garai desberdinak
baina antzekoak minak
gutun honetan bilobarentzat
kontu ez jakinak
xamurrak eta gordinak
historiaren izkinak
amama gehio ezagutzeko
esango dizkinat

2- Hamahiru urte beteta
bi trapurekin maleta
hiriburura ume zaintzera
besterik ez eta,
aberatsekin tarteka
pastel, bisigu, txuleta
sekula ikusi gabe nizkinan
janen dastaketa

3- Lanean hamasei ordu
bizitza nienan saldu,
igande goiza ta estropadak
nik ezin azaldu,
zortzi hilabete galdu
aurreztu gutxi, koitadu
etxean ogi gogorra janez
gutxienez salbu

4- Gerrak tristura ugari,
gure aita txistulari
zelako preso sartu zitenan
kartzelan aste bi
zigorra familiari
ez jostailu, ez afari
geuk gutxiago jaten geninan
emateko hari

5- Zer ikusiko akaso
ama denak zerura so
euren semeek hegazkinetik
eskuekin kaso
mutil gazteen arazo
borroka eta eraso
ezetzik ezin zinaten esan
aginduak jaso

6- Hegazkin bat erorita
Urrestilla antxintxika
andaluziar beltzarana han
negar garrasika
anbulantzian jarrita
kezka hura ikusita
auskalo nola zeudenan bere
ama eta aita

7- Neskok abarketak josten
ahizpa mundua ikusten
etxe batera Pariseraino
bidali zinaten
bi gauz frantsesez esaten
nahiko lan zinan izaten
ikasitako hitz apur haiek
guri erakusten

8- Madmoiselle, bon jour, merci
s'il vous plait, nahiko trebezi
bi urte frantses famili hartan
egonak merezi
gurasoei atrebentzi
galdetuko orduko etsi
neuk e nahi ninan haize freskoa
herritik ihesi

9- Nere lehengusin Maria
ta biok talde handia
ultramarios bat irekita
hantxe lanaldia
ai zapatu eguerdia
denda lagata garbia
antxoilak ta vermouthe prexkoa
geninan saria

10- Zinemara igandero
eta astelehen goizero
lagun guztiak ni iritsi zain
kontatzeko gero
Hollywoodeko endredo
printze urdin, kaballero
nahio zitenan nik detaileak
erantsi ezkeru

11- Gazte mordoa lanera
hemengo tailer batera
Larrabetzutik mutil eder bat
begien parera
etorkizuna, aukera
bizitzari goitik behera
beste zentzu bat hartu nionan
ordutik aurrera

12- Pozez beteta herriak
aupa ezkonberriak
gure osabaren pasadizoak
hain barregarriak
hankazpi gorri-gorriak
pasatuz ordu larriak
kartoi ta guzti jantzi zizkinan
zapata berriak

GAZTEAK



1.SARIA

Naia Arrizabalaga Arrieta

ETEN PUNTURIK EZ

DOINUA: Amaren bularra

1- Azkar bihurtu zaigun
lehengo sua ke
gerra bihurtu zaigun
lehen zena bake
amorrurik ez dinat
hirekiko bate
harremana ganoraz
buka(tu) nahi ninake.

3- Hire ile guztiak
buruz ikasita
hire kilimak faltan
botatzen hasita
ederki egonak gaitun
elkarri josita
baina nola askatu
nagon nahasita.

5- Kaixo esatea nahiz
dunan hain erraza
denbora ez dun berez
alferrikan pasa
barruko sentimendu
denen anabasa
hitzez azaltzekore
ni ez naun kapaza.

2- Gogoratzen dizkinat
hire ertz,iskinak
nire bular gainean
hire esku finak
goizetan utziriko
mahai gain zikinak
lehen pozak hitunan
orain aldiz minak.

4- Duela hamar bat urte
gintunan elkartu
udaberri,udazken
ta negu pasatu
baina maitemin hitza
azkar dun banatu
maitea beharrean
mina dun hautatu.

6- Ni ez naun inor hiri
hegoak kentzeko
puntu bat hiru eten
puntu bihurtzeko
has(i)era denek diten
data amaitzeko
denbora badinagu
berriz elkartzeko!




GAZTEAK



2.SARIA

Oier Juaristi Agirrebeña



DENBORA AZKARREGI, GOIZETIK GAUERAINO

DOINUA: Hona bildots ezta (Baldarrak)

1- Begiak ixterako
eguna zabaldu,
ametsaren erdian
argia azaldu.

2- Aurpegia garbituz
esnatu naun ontxe,
egunero holaxe
hasten dinat goize.

3- Gaurko goizean ere
berandu esnatu,
gosaria presaka
e(g)in dinat tragatu.

4- Gero antxintxika ni
jun naun ikastola,
ta bidin nijuela
jo dinat farola!

5- Sei ordu egunero
ta hola ehun aste,

za(ha)rren orduteixekin
hasi gaitun gazte.

6- Hi zer moduz bizi haiz
nire lagun Alaitz?
Hire estresatuta
bizi ote al haiz?

7- Goizo etxetik irten
ta berandu sartu,
jolasteko denboraik
ez zaidan geratu!

8- Ez baldinba(da) eskola
den estraeskolarra,
afalostea den libre
daukagun bakarra!

9- Horrela bukatzen den
gazteon eguna
Gora aisialdia
ta gaztetasuna!

GAZTEAK



AZKOITIA-SARIA

Noa Brea Poveda
Intza Arrieta Azpiazu
Maddi Arrieta Arrizabalaga

JAKARA BIDAIA

DOINUA: Guretzat berdin dira (Oskorri)

1- Jakara joan gaitun
gu denok batera,
asteburu eder bat
ondo pasatzera.

2- Eskiatzen ai gaitun
polita den Astun,
bi hanketan eskiak
ta bastoiak eskun.

3- Noa joango al gaitun
orain erosketa?
Asko gustatu zaidan
hor dagon txaketa.

4- Goazen ba tabernara
zerbait bazkaltzera,
janaria eskatu ta
tripa betetzera.

5- Maddik etxera orain
nahi omen din joan,
kotxerik ez zegon ta
joan beharko astoan.

6- Etxera iritxita
erdi lotan hemen,
lo kuluxka egiteko
ederki gatxauden!

7- Xista egin baino hobe
dinagu afaldu,
oporrak ditun eta
denbora ez galdu.

8- Oso polita izan den
Jaka aldeko bira,
oporrak buka(t)u ditun
goazen Azkoitira!

I. HIKE EIZAN!

BERTSOPAPER
LEHIAKETA

